

## SAN MARTINGO ARTISAUEN AZOKARAKO OINARRIAK

### SARRERA

San Martin azoka, Euskal Birusa Kultura elkarteak 1990. urtean bultzatutako ekimena dugu. Urtez urte gure herrian sustraitu dena, jai-egun ospetsua eta nekazaritzako produktuen eta euskararen erreferentea bilakatuz. Azokak euskara sustatzea helburu du eta herritar askoren laguntzaz herri osoa, jai giro euskaldunez janzten du.

Artisau azoka, berriz, nekazal azokaren ekintza osagarri moduan sortu zen, eta formatu txikikoa da. Hala ere, herrikoia eta anitza, eta San Martin azokak duen helburu nagusiarekin guztiz bat egiten duena, hau da, herrian euskara sustatzea.

### AZOKA EGUNA

2018ko azaroaren 10a (larunbata)

Ermuan.

### AZOKAREN HELBURUA

Azoka honen bitartez

- Entzunez zein begiz Ermuan euskararen erabilera sustatu nahi da.
- Tokiko artisautza sustatu nahi da.
- Aintzako Euskal ohiturak eta lanbideak ezagutaraztea nahi da.

### PARTAIDEAK

- Lehentasuna herrikoek izango dute.
- Jasotako gainontzeko eskabideen artean antolatzaileek azokaren helburuak kontuan hartuta eta originaltasuna eta desberdintasuna baloratuz aukeraketa egingo dute eta aukeratuek urriaren 26a baino lehenago jakinarazpena jasoko dute, hala egin ezean eskabidea ukatua ezin dela ulertuko da.

### IZEN EMATEA

- Non: Posta elektronikoz egin beharko da eskaera helbide honetara bidaliz: [euskalbirusa@gmail.com](mailto:euskalbirusa@gmail.com). Eskabide ereduaren datu guztiak azaldu behar dira
- Noiz: Urriaren 1etik 10era

### POSTU BANAKETA

Erakustokiak zozketa publikoaren bidez esleituko dira Lobiano Kulturgunean, urriaren 30ean, osteguna, arratsaldeko 19:00etan egingo den ekitaldian.

### PARTE HARTU BETE BEHARREKO BALDINTZAK

## SAN MARTINGO ARTISAUEN AZOKARAKO OINARRIAK

- Artisauak bere lantegian ekoizten dituen produktuak bakarrik saldu ahal izango ditu.
- Posturako mahaia antolatzaileek jartzen dituzte. Mahai horien neurria 2.20 metrokoa da eta horretara moldatu beharko da artisaua. Ezin da beste gehigarririk edo karparik jarri
- Karteleria guztia euskaraz jarri behar dute, eta artisauak euskara erabiltzeko konpromisoa izan behar dute, azokaren helburu nagusiarekin bat eginez.
- Produktuek prezioa izan behar dute
- Ez da ordain saririk izango artisauentzat.

### **OHARRAK**

- Ez da onartuko birsaltzaileen presentziarik azoka gunean.
- Antolatzaileek musu-truk egiten dute lan, eta eurekiko begirunea eskatzen da. Antolatzaileekin portaera desegokia izanez gero, egileak azokan parte hartzeko aukera galduko du.

